

» TELEGRAMA

Iruñeko **Ikuspuntu** zinema dokumentaleko nazioarteko jaialdia otsailaren 8an hasi zen eta 14an bukatuko da. Besteak beste, José Luis Guerin zuzendariaren azken lana ikusteko aukera **STOP Ardoa eta odola** ikuskizuna Bilboko Kafe Antzokira iritsiko da otsailaren 11n: Hala Bedi irratiko **Celosamente Gordea** saiotik abiatutako ekimenari Napoka Iria eta Joseba B. Lenoir batu zaizkio **STOP 40** urte agertokietan, erraz esaten da: **UK Subs** punk talde historikoa Gasteizera iritsiko da otsailaren 13an. Hell Doradon da zita, TV Smith & The Bored Teenagers taldearekin batera **STOP**

» DISKOA

Tori danbateko garaikidea!



Iker Barandiaran



Latigo
SONIC TRASH
Brixton Rds, 2015

Banekien Sonic Trash taldearen oinarria milurtekoaren hasieran Bilbon sortutako Ya Te Digo taldetik zetorrela, baina izen hark –Ya Te Digo– interes puntua ezabatu zidan eta ez nien jaramonik egin. Gerora jakin nuen 2000an, maketa bakarra zutela, Bilbo Hiria lehiaketa ospetsuan euskal talde onenaren saria eskuratu zutela. Hiru disko luze (*Uruhue*–2001, *Kill switch*–2005 eta *Trash tango*–2008) eta hainbat lan txikiago kaleratu, eta bereziki Bizkaian kontzertu ugari egin zituzten, betiere soinu-distortsio partak eraiki, gitarra eta erritmo gogor zein barnerakoiak landuz eta Daviden ahotsari esker ukitu bereizgarriagoa –indieagoa?– emanaz.

Horren atzetik Sonic Trash taldea etorri zen Ya Te Digo lurperatu eta entzuleari zaplazteko handiago emateko helburua zuena. Eta, bide batez, bestelako musika zaleen arreta ere piztu zuen. 2011n *Hey chica* lan luzea kaleratu eta taldeak indartuta zegoela erakutsi zuen. Gainera, bueltan zen hastapenetako Mariana bateria jotzailea ere.

Sonic Trasheko taldekideak musika zale amorratuak dira, eroak ia, eta hori nabaria da beraien diskoetan. Izan ere, ezinezkoa da egiten dutenari izena jartzeari, hain da irekia, errailetakoa, garaikidea, iluna, itsaskorra eta aldi berean bortitza. Hala ere, taldearen azken lan itzela, *Latigo* seguruenik oharkabean pasako da!

Diskoa zabaltzen duen *El baile del cocodriloren* danbatekoak lurrera botako zaitu: arnasa kentzen duten bateria kolpeak, blues zikin azkarra, misterio-tsua eta iluna, erabat rockeroa. *El caminante*, berriz, post-rocka da, distortsio, tarte xuxurlatu eta koro borobilak dituena. *Santo Tomas* abesti osatuena da, borobila: aspaldi entzun dudana power-pop pieza irmoena. Uauuu! *Zamudio boogie*k punketik, metaletik eta Jon Spencer Blues Explosionetik edaten du. *Agonia* espaziala eta arraroa da, intriga handikoa. *Bang* bihotz handiko rock gogorra pop eta garagearekin bat eginda. *Latigo* gaztelaniazko high-energía, ukituz gero erretzen duena. *Reinas* high-energy, gitarra makur eta punk-rockarekin egindako entsalada. *Amodio* post-hardcore, free askea eta pop-rockaren ezkontza. Eta, azkenik, *Venganza*, techno industrialaren eremuetara axolagabeki hurbiltzen den pieza rockero oso-oso iluna.

Kristoren aurkikuntza da taldea, erabatekoa. Indartsua da oso, zapalgailu hutsa, gitarrak muturreraino okertu, erritmo sakon eta pisutsuak landu, post-rock giro ilunagoetatik rock egiazkoenera bueltatu eta zuku handiena ateratzen diona. Eta horren guztiaren gainetik –edo alboan– ia kontraste gisa xuxurlatuzetik, iradokitzetik edo oihukatuzetik erregistro sarkorrak hartzen dituen Daviden ahotsa eta hitz erdi kriptikoak. ■

